

# **AHOZ-AHO 2013**

## **KONTATU GUREKIN!**

### ***IPUINEN AHOZKO NARRAZIO LEIHAKETA***

#### **AURKEZPENA:**

Ahozko Narrazioaren Lehiaketa 2013ko AHOZ-AHO Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren barruan kokatuko da, narrazioaren artea sustatu eta zabaltzea helburu hartuta.

#### **OINARRIAK:**

##### **1-IZEN-EMATEA**

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea 2013ko otsailaren 15a baino lehen egin beharko da.

1.1- Parte-hartzaile bakoitzak e-mail bat bidali beharko du [intujai@intujai.com](mailto:intujai@intujai.com) helbidera, "IPUIN LEHIAKETA" goiburuarekin.

1.2- Izen-ematea osatzeko ondoko datuak eman beharko dira:

- Parte-hartzailearen izen-abizenak.
- Kontatuko den ipuinaren izenburua.
- Ipuinaren egilea.
- Posta elektronikoa eta telefonoa.

1.3- Izen-ematea gauzatzeko parte hartzaile bakoitzak 20€ ordaindu beharko ditu seinale gisa, eta diru hori partaidetza amaitutakoan itzuliko da.

## 2-ARAUAK

- 2.1- Profesionalek zein ez-profesionalek parte hartu ahal izango dute.
- 2.2- Ipuinak 8 minutu iraungo du gehienez.
- 2.3- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ipuin bat aurkeztu ahal izango du.
- 2.4- Lehiaketak bi fase izango ditu:

Lehiaketako SAILKAPEN GALA otsailaren 23an izango da, larunbata, 22:00ean, ORDIZIAKO BARRENA JAUREGIAN, eta saio horretan HIRU FINALISTAK hautatuko dira.

Lehiaketako FINALA martxoaren 1ean, ostirala, izango da, 19:00etan, ORDIZIAKO HERRI ANTZOKIAN. Han, HIRU FINALISTEK 2013ko AHOZ AHO NARRAZIOAREN GALA HANDIAN parte hartuko dute.

2.5- SAILKAPEN GALAN lehiaketako partaide guztiek parte hartuko dute, zozketaz ezarriko den hurrenkeran.

2.6- SAILKAPEN GALAN hautatuko dira FINALERA iritsiko diren HIRU FINALISTAK:  
EPAIMAHAIK BI FINALISTA hautatuko ditu, eta beste bat PUBLIKOAREN BOTOAREN bidez aukeratuko da.

2.7- FINALEAN, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA eta PUBLIKOAREN BOTOA batuta erabakiko da IRABAZLEA zein den, baita BIGARREN eta HIRUGARREN sailkatuak ere.

2.8- EPAIMAHAIAREN erabakia eta PUBLIKOAREN BOTOA apelaezinak izango dira.

### 3-SARIAK.

LEHENENGO SARIA: 300€

BIGARREN SARIA: 200€

HIRUGARREN SARIA: 100€

Lehiaketa honetan parte hartzeak **beraren oinarri guztiak onartzen direla esan nahi du**, baita oinarri horietan jasotzen ez den aurreikusi gabeko edozein gertakariri buruz ANTOLAKUNTZAK hartzen dituen erabakiak ere.

Parte-hartzaileek OINARRIAK errespetatzeko **konpromisoa hartzen dute**.

Ordizian, 2012ko abenduaren 20an.

**INFO GEHIAGO:**

Tlf: 647201401

E-mail: [intujai@intujai.com](mailto:intujai@intujai.com)

